

LURRAMA

LA FERME PAYS BASQUE

10.11.12
NOVEMBRE
AZAROA

> 23



BIARRITZ / MIARRITZE

— HALLE D'IRATY —



LURRAMA 2023
AZAROAREN 10, 11, 12a - IRATY GELA - MIARRITZE
130 egun eskas !

EMAZTE LABORARIAK ARGITAN

2023ko tematika

2023ko edizioaren kari, emazte laborariak argitan ezartzea erabaki dugu, « Emazte laborariak argitan » tematikarekin.

➤ **Zergatik emazte laborariak argitan eman ?**

Kausa feministak gero eta gehiago daude ezenaren aintzinean, bereziki emazte eta gizonen arteko berdintasuna. Bilakaerak errealak badira ere, desberdintasunek lan-munduan, etxeko eremuan edo eremu publikoan irauten dute. Gainera, gizonen eta emazteen arteko berdintasuna Macronek bosturtekoaren kausa garrantzitsutzat jo zuen. Zenbait xifre adibide gisa :

- Lan munduan, emazteen soldaten diru-sarrerak, batz bestea, gizonenak baino %22 txikiagoak dira (INSEE).
- Eremu pribatuan, emazteek gizonenak baino oren bat ta erdi gehiago ematen dituzte egunean etxeko eta familiako lanetan (INSEE).
- Azkenik, eremu publikoan, komunikabideetan elkarrizketaturiko adituen %19 baino ez dira emazteak (OXFAM).

Hala ere, pentsamoldeak aldatzen ari dira eta aurrerapenak nabarmenak dira.

Laborarien mundua, gizarteko beste guziak bezala, emazteen eta gizonen arteko desberdintasunen lekua ere izan da. Azken urteetan aldaketa handiak izan dira gai horietan. Gero eta emazte gehiagok jotzen dute laborantza-lanbideetara. Frantzian, gaur egun, etxalde-buruen 1/4 ordezkatzeko dute.

Emazteen genero-estereotipoak eta "ikusgarritasuna" deskonposatzeko lana funtsezkoa da pentsamoldeak eta jarrerak sakonki aldatzen jarraitzeko. Horregatik, garrantzitsua iruditu zaigu mugimendu honetan gure forman parte hartzea, emazte laborariak omenduz, eta hori begiradak eta praktikak aldatzen laguntzeko.

➤ **Emazte laborariak argitan**

Emazte laborarien eskubideak, errola eta ardurak argitan eman nahi ditugu, baita ere haien ikusgarritasuna.

Emazte laborariak beti hartu izan dute leku garrantzitsua laborantzaren munduan, baina ez da beti agerian izan, eta usu zilegitasun eskas airerekin. « Paysannes en polaire » kolektiboaren « Il est où le patron? » komikiak erakusten duen bezala, haien errolak minimizatzen dituzten eta « laguntza » tzat jotzen dituzten irudikapenak bizirik dira. Emazte laborarien %62, berriz, etxalde-buru, etxalde-buru orde edo elkartuak dira.

Haien eskubideei dagokienez, 1980 arte itxoinn behar izan zen lehen estatutu bat ukaiteko, "lanetan parte hartzen duen bikotea". Estatutu edo azpi-estatutu, zinez haien lekua baserrian garrantzi berekoa zela jakiten denean! 2010ean bakarrik bikoteen artean GAEC sortzearekin estatus-berdintasuna posible izan zen. Emazte laborariek 2008ra arte itxoin behar izan zuten, langileen erregimen orokorreko amatasun-oporraldi bera lortzeko. Eta 2012an bakarrik lortu zen laborantza ganberetarako hauteskunde-zerrendetan %30en emazte izaiteko obligazioa.

Oraindik ainitz bada egiteko, batez ere estatutuari eta gizarte-eskubideei (pentsioak, etab.) dagokienez. Haien tokia eta lanbide horretan begirada aldatzeko.

Mundu osoan nekeziak izan arren, emazte laborariek beren geroa eskutan hartzen dute eta beren lekua aldarrikatzen dute eremu profesionalean edo eremu publikoan.

Erakunde militante eta politikoetan, emazteak gero ta gehiago errepresentatuak dira eta laborari gazteen belaunaldiek sindikatuen ilarak aberasten dituzte. Adibidez, « Confédération Paysanne »n emazteen batzordea sortu zen gai guzi horiek jorratzeko : eskubide berdintasuna, emaztearen eta gizonaren arteko estatutu bakarra, emazteek laborantzan duten aitorpena eta ordezkartza, baina baita ere diskriminazioa, eraso sexistak eta emazteen aurkako indarkeria ere. Eztabaidarako leku bat eskaintzen du, feminismoaren aldeko aurrerapena. Talde horren testigantzek erakusten dutenez, genero-estereotipoak ugariak dira laborantzaren munduan, eta, historikoki, indar fisikoan oinarritzen dira; emakumeak, aldiz, jarduera berriak garatzeko indar eragileak dira. Praktiketako espezifikotasun eta ezagutza berritzaileak ematen dituzte. Eta hori guztia gizarte-desberdintasun asko sortzen dituen eredu kapitalista eta industrialak inposatzen duen patriarkatu baten aurka borrokatzen saiatuz.

➤ **Emazte laborariak Iparraldean**

Hemen gure lurraldean, 60-70eko hamarkadara arte, emazteek, gizonak bezala, etxaldeen orekan eta funtzionamenduan leku nagusia zuten. Lanbidea, bikoteak eramaten zuen naturalki, bizi modu normal gisa.

Lanbidea profesionalizatu delarik, emantzipazio-mugimendu batekin batera, emazteak pixkanaka familiaren etxaldeetatik urrundu ziren eta kanpoko lanak hartu zituzten. Aldi berean, horietako ainitzek etxaldeen lanean segitu zuten, baina estatutuik gabe. Azken hamarkada honetatik goiti, emazteak ofizialki itzuli dira laborantzara. Etxalde sistemen dibertsifikazioarekin, bikoteen arteko GAEC sorrerarekin, etxaldeko eraldaketarekin eta abarrekin, emazteak gero eta gehiago instalatzen dira: Ipar Euskal Herrian, 2010ean instalazioen %25 baino ez ziren, 2022an %38 dira !

Denen irudimenean, gizon laboraria traktore baten gidaria da maiz. Ahatik lanak gizon eta emazteen artean banatzeko era asko daude eta etxaldeen kudeaketan emazte laborariak funtsezko zeregina dute.

Azkenik, emazteak biziki inplikatuak dira laborantza herrikoiaeren proiektuaren abiarazten. Oro har, instalazio berritzaileen proiektuen eramaileak dira (eraldatze,

dibertsifikazio, harrera, etab...), laborantza sektorearen aberastasunean eta jasangarritasunean parte hartzen dute. Bistan da, emazte ainitz aurkitzen ditugu laborarien garapen-instantzietan (sindikatuak, batzordeak, talde-egiturak).

Gainera, 1982an gizonak inarrosiz eta akuilatuz, emazteek zuten ELB laborantza herrikoiaeren sindikata proiektua bultzatu, FDSEA alde batera utziz, ez dituguia eskertu behar ?

➤ **Emazte laborariak munduan**

Mundu mailan, Laborantzarako eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) lanak erakusten du, luraren eskuragarritasunari, hongarrieri, zerbitzuei, finantzaketari eta teknologia digitalei dagokienez, emazteek atzerapena izaten jarraitzen dutela. Herrialde ainitzetan, oraindik asko bada egiteko emazteak lurak dituzten gizonak bezain ugariak izan daitezzen eta beren eskubideak legeen bidez babestuak izateko.

Kezkagarria da emazteen eta gizonen arteko desberdintasunak, hedapen- eta ureztatze-zerbitzuetarako sarbideari eta lur-jabetzari dagokienez, azken hamarkadan gutxi jaitsi izana. Hala ere, emazteen autonomia hobetzea funtsezkoa da haien ongizaterako, eta eragin positiboa du laborantzako ekoizpenean, elikagaien segurtasunean, elikaduraren kalitatean eta hauren elikaduran.

Bilakaera horiek posible iruditzen zaizkigu emazte eta gizon laborariak elkarrekin aurrera egiten badute. Porton egin zelarik Via Campesinaren elgarretaratzean, Brasilgo Lurrik Gabeko Mugimenduaren ordezkariak erran zuen bezala: "Emazte bat aurrera doanean, ez da gizonik atzera doana".

Gai hau aukeratzean, laborarien %30 ordezkatzeko dutenei, ikusgarritasun eta onarpen handiagoa eman nahi diegu.

Edizio honetan, haien errolak, konpromisoak, eskumenak eta berezitasunak nabarmenduko ditugu eta horiei buruz gogoeta egiteko aukera izango da. Harro gira haiei omenaldia egin, ohoratu eta dagokien lekua emateaz.

LURRAMA 2023
AZAROAREN 10, 11, 12a - IRATY GELA - MIARRITZE
130 egun eskas !

MORGAN ODY, edizioaren gosama

Morgan Ody, La Vía Campesinaren Europako Koordinazioko kidea, La Vía Campesinaren (LVC)* koordinatzaile nagusi bihurtu zen, erakundeko Nazioarteko Idazkaritza Operatiboaren egoitza 2021ean Frantziara aldatu zenean.



Morbihanen baratzezain, badu hamar urte baino gehiago Confédération Paysanne sindikatako kide dela, batez ere lurra eskuratzeari buruzko borrokan. Emazte komisioan ere parte hartu du luzaz.

*La Vía Campesina 200 milioi laborari inguru biltzen dituen munduko erakundea da. Emazteak La Vía Campesinako parte-hartzaile eta aktore nagusiak dira. Emazteen errola mugimenduan, laborarien mugimenduetan eta nazioarteko beste gizarte-erakunde batzuetan aparteko mugimendua bihurtzen laguntzen du. Lanak, perspektibek, analisiak, energiak, lidergoak eta emakumeek La Vía Campesinan duten presentziak sakonki aldatu dute mugimendu hori, eta indartsuago bihurtu dute

LURRAMA 2023
AZAROAREN 10, 11, 12a - IRATY GELA - MIARRITZE
130 egun eskas !

ESKUALDE GOMITA : FRANCHE COMTÉ

Franche Comté Frantziako ekialdeko eskualde bat da, luzaz Bourgogne eskualdearen parte izan dena. Suitzako mugan, Alemaniatik eta Italiatik hurbil da. Bere departamenduak dira Doubs (545000 bizt.), Jura (260000 bizt.), Haute Saone (230.000 bizt.) eta Belfort (14.000 bizt.).



Baso eskualde garrantzitsua da (azaleraren %43), haritza eta pagoa dira nagusi, baina zapin eta izeia ere bai altueretan. Muinoak, ordokiak, eta mendi ertainek osatzen dute paisaia. Kontinentaleko klima hezeak eragin handia du laborantzan.

Kalitatezko ekoizpen ainitz dira: lehenik eta behin, Montbéliarde arrazako behien bidez ekoizten da esnea; gasnaz baloratzen da. Gero, Jura eta Haute Saoneko arnoak. Garia, garagarra, koltza eta artoa Haute saone eta Belfort lurraldeetan atxematen da.



Gasna asko « fruitières » delakoetan egiten dira. Horrek mendiko gasnategi tradizionalak izendatzen ditu, eta bertako zenbait ekoizlek artaldeko esnea bateratzen dute gasna bihurtzeko. Kooperatiba tipi hauen helburua da inguruko etxaldeetako esne-ekoizleei eraldatze partekatuko leku bat eskaintzea, eremu geografiko mugatu batean. Comté gasna adibidez, fruitières-etan egina da (baina ez findua), eta biltzeko eremua ezin da 25 km baino handiagoa izan gasnategiaren inguruan. Ekoizlea aktorea da eta erabakietan parte hartzen du (ekoizpenaren kontrola, baldintza-kaiera).

Gehien ekoizten den gasna Comté da (55000T). 1958an egin zen lehenengo gasna-AOCa, eta ordainsari ona ematen die ekoizleei. Beste espezialitate batzuk Mont d'Or, Morbier, Cancoillotte, Gex-eko Urdina eta Gruyère frantsesa dira.



Jurako mahastizainek Arboiseko ardoa ekoizten dute, Frantziako lehen AOC izan zen 1937an. Arno horia ere atxematen da eta Macvin, besteak beste.

Eskualde horrek Fougères-ko Kirsch (AOP), ajeno, gentiana, ahabia likorea eta xarkuteri ugari ekoizten ditu: Mortearen edo Montbéliard-en saltxitxa, Luxeuilgo urdaiazpikoa, Doubs garaiko urdaiazpiko ketua, Mortearen Jesus.

Eskualdearen aniztasuna ordezkatzeko laborari aktibo eta erretretadunek harrera ona egingen dizute Halle 2ko standean, azaroaren 10etik 12ra.

LURRAMA 2023
AZAROAREN 10, 11, 12a - IRATY GELA - MIARRITZE
130 egun eskas !

AZAROAREN 10a OSTIRALA

11:00 - Hall 1 - Estrena

Miarritze, CAPB, CD 64 eta Akitania Berria eskualdeko hautetsien presentziarekin. Dominique Voynet-ek, eskualde gomitaren ordezkari gisa hitza hartuko du.

15:00 - lehen estaia - Gela 3 - Antolaketa kolektiboen forma desberdinak

Maiz emazte laborariak ez dira kolektiboki gizonak bezala antolatzen. Iduri luke gizonek heien ginarreak dituztela lehenesten, emazteek aldiz heien buruak... Emazte laborariek beren mugei (familia ardurarekiko bateragarritasuna, indar fisikoa...) eta beren nahikundeei ere arropostuak emateko antolaketa berezi batzu asmatzen dituzte, batzuetan gerora laborari guzientzat onuragarri eta erabilgarri bilakatzen direnak. Emazteek lan egiteko edo formakuntzako antolaketa kolektibo biziki interesgarriak asmatzen dituzte.

Mahain inguru horretako parte hartzaileek heien gogoeten eta antolaketa kolektibo interesgarri batzuetaz lekukotasunak emanen dituzte: lan sail kolektiboak, emazteen arteko formakuntzak, ordezkapen zerbitzuak, etab.

17:00 - lehen estaia - Gela 1-2 - Filma 'Moi agricultrice'

Emazteen historia laborantz

1950eko hamarkadatik gaur egun arte, emazte laborariak borrokatu behar izan dira heien senarrentzat bistakoak ziruditen gauzak lortzeko: errekonozimendua, estatus soziala, ikusgarritasuna... Hau dena emazte laborarien borroken poderioz lortua da edo hobeki erran lortzen ari da. Hori da filma honetan agertzen den istorioa.

Filmaren ondoko eztabaidan, Ipar Euskal Herriko emazte batzuek lekukotasunak emanen dituzte, beren laborari ofizioaz, beren militante engaiamenduaz...

LURRAMA 2023
AZAROAREN 10, 11, 12a - IRATY GELA - MIARRITZE
130 egun eskas !

AZAROAREN 11a LARUNBATA

11:00 - lehen estaia - Gela 1-2- Emazte laborarien tokia Euskal Herriko laborantzan

Emazte laborariek beti izan dute funtsezko eginkizuna etxaldeetan, nahiz eta guztiz isilduak eta itzalpean atxikiak izan diren luzaz. Beren senarren itzalpean, estatus sozialik gabe... Borroka luze batzuen poderioz gauzak aldatzen ari dira. Gaur egun, Euskal Herrian, gero eta gehiago dira laborantzan, artzaingoan plantatzen diren emazteak. Laborantzan gero eta leku gehiago hartzen ari dira, laborari erakundeetan, baita plaza publikoan ere.

Mahain inguru honetako parte hartzaileek emazteek etxaldeetan eta laborari dinamiketan hartzen duten lekuaren lekukotasunak emanen dituzte. Hegoalde eta Iparraldeko errealitateak ezberdinak izanik ere, helburuak amankomunak badira: emakumeek beren leku osoa hartu behar dute Euskal Herriko laborantza arloan.

15:00 - lehen estaia - Gela 1-2- Emazteak eta beren tokia erakundeetan:

Gauzak ez dira beti natural eta errex egiten. Noizean behin sustatu eta planifikatu behar dira. Hala, genero-berdintasuna erakunde kolektiboetan (egiturak, sindikatuak, alderdi politikoak, etab.) ez da baitezpada naturala, eta ez da arduradunen eskakizun bat ere, gehienetan arduradun bhauek gizonak direlarik. Emazteeri lekua emateko egituraketa eta funtzionamendu moduak ere ez dira egokiak.

ELA eta Confédération Paysanne sindikatuetan eginiko aukerak adibidetzat harturik, metamorfosi feminista baterantz jarraitu beharreko urratsak aipatuko ditugu. Dominique Voynet-ek politikagintzan emazte gisa izan duen esperientziaren eta emazte arduratsuen bilakaeraz duen ikuspegiaren berri ere emango du.

LURRAMA 2023
AZAROAREN 10, 11, 12a - IRATY GELA - MIARRITZE
130 egun eskas !

AZAROAREN 11a LARUNBATA

15:00 - lehen estaia - Gela 3- Filma **Des brebis et des femmes, Laurence Fleury**

Duela hogeita hamar urte artzain-lanbidea gizonezkoa zen kasik bakarrik. Ardiak bortuetan zaintzen zituzten emazte guti ziren eta esku baten hatzetan kontatzen ziren.

Gaur egun, Biarnoan, artzain-etxolen erdiak bikoteek edo familiek betetzen dituzte. Kasik heren bat emazte artzainak dira, eta uda osoa mendian pasatzen dute, gizonen lan ber-bera eginez. Lanbidea gaztetu da ere.

Zerk bultzatzen ditu emakume hauek, gehienak hiritik datozenak, diplomatuak batzuk, lanbide hau besarkatzera? Zer zailtasun dituzte? Nola lortzen dute instalatzea? Eta nola ikusiak dira ingurune tradizional horretan?

17h - lehen estaia - Gela 1-2 - Emazte laborarien borroka munduan zehar

Landa-eremuetan bizi diren emazteek eta emazte indigenek borroka eta iragan luzea dute. Aintzinamendu garrantzitsuak lortu dituzte zenbait testuinguru eta eskualdetan. Borroka feministek emazteen eskubideak giza eskubide gisa onartzera, hezkuntzarako eta baliabideetarako eskubideak onartzera eta emazte batzuen gizarte-egoera hobetzera eraman dute. Baina konkista horiek ez dira unibertsalak.

Morgan Odyk, edizio honetako gosamak, munduan zehar emazte laborarien borroken berri emanen digu. Via Campesinako koordinatzaile nagusia, 200 milioi nekazari inguru biltzen dituen munduko erakundea, eta Confédération Paysanne sindikatako batzorde feministako kidea, hizlari ezin hobea da gai horiek sakontzeko.

LURRAMA 2023
AZAROAREN 10, 11, 12a - IRATY GELA - MIARRITZE
130 egun eskas !

AZAROAREN 12a IGANDE

11h - lehen estaia - Gela 1-2

Les paysannes en polaire - 'Il est où le patron ?' komikiaren aurkezpena

Komikia huntan, gizonez eta sexismoaz inguratuak diren 3 emazte laborariren ibilbidea eta gertakariak segitzen ditugu. Emazte laborari ororen errealitateaz ohartzeko aukera emaiten du liburu hunek. Bai eta normaltasunerat, errespeturat eta berdintasunerat heltzeko, gizon ala emzateek, eman behar ginuzken urratsetaz ere.

Gurekin izanen dugu Céline Berthier, Ardèche eskualdeko laboraria, eta komiki horren parte hartzaile 'paysannes en polaire' kolektiboarekin.

Céline 2017az geroztik instalatua da GAEC batean Marceline kidearekin. 60 ahuntz inguru hazten dituzte eta Picodon AOP izeneko gasna egiten dute.



LURRAMA 2023

AZAROAREN 10ETIK 12RA

IRATY GELAN

MIARRITZEN

KONTAKTUA :

Estelle GOGNI 06 89 29 19 85

lurrama@ehlgbai.org